Agintariak eta Langileria

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

HERRIZAINGO SAILA

1900

ERABAKIA, Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak ebaluatzeaz arduratzen den Epaimahai Kalifikatzailearena. Proba horiek Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2008ko urriaren 10eko Ebazpenaren bidez deitu ziren (2008ko azaroaren 5eko EHAA, 212. zk.).

2008ko urriaren 10eko Ebazpenaz (2008ko azaroaren 5eko EHAA, 212. zk.) Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probetarako deialdia egin zen. Aipatutako deialdiko probak ebaluatzeko Epaimahai Kalifikatzaileko idazkariak, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2008ko abenduaren 10eko Ebazpenaren bitartez izendatuak, honako hau

EGIAZTATZEN DU:

2009ko martxoaren 10ean egindako bileran, Epaimahai Kalifikatzaileak, besteak beste, ondorengo hau erabaki duela:

ERABAKIA:

Bakarra.– 2009ko martxoaren 10eko erabakiaren bitartez, Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko bigarren zatiaren behin-betiko emaitzak onartu ziren, eta horrela aitortzen da, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2008ko urriaren 10eko Ebazpenaz eginiko deialdiko Hamabigarren Oinarrian jasotakoa betetzeko (2008ko azaroaren 5eko EHAA, 212. zk.).

Bide administratiboa agortzen ez duen Erabaki honen aurka, interesatuek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariari, argitalpenaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean.

Esandako errekurtsoa Epaimahai Kalifikatzaileari edo Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariari aurkeztu ahal izango diete interesatuek.

Arkaute, 2009ko martxoaren 10a.

EPAIMAHAIKO IDAZKARIA.

EPAIMAHAIKO LEHENDAKARIA.

Autoridades y Personal

Cursos de Formación y Perfeccionamiento

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

1900

ACUERDO del Tribunal Calificador encargado de evaluar las pruebas para acreditación del Perfil Lingüístico 1 de la Ertzaintza, convocadas por Resolución de 10 de octubre de 2008 (BOPV n.º 212 de 5 de noviembre) de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco.

El Secretario del Tribunal Calificador designado por Resolución de 10 de diciembre de 2008 de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco para evaluar las pruebas para acreditación del Perfil Lingüístico 1 de la Ertzaintza convocadas por Resolución de 10 de octubre de 2008 (BOPV n.º 212 de 5 de noviembre).

CERTIFICO:

Que en sesión celebrada el día 10 de marzo de 2009, entre otros, el Tribunal Calificador adoptó el siguiente:

ACUERDO:

Único.– Mediante Acuerdo de 10 de marzo de 2009 se aprobaron los resultados definitivos de la segunda fase de las mencionadas pruebas, lo que se indica a los efectos del cumplimiento de lo dispuesto en la Base Duodécima de la Resolución de 10 de octubre de 2008 (BOPV n.º 212 de 5 de noviembre) de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se convocaban pruebas para la acreditación del Perfil Lingüístico 1 de la Ertzaintza.

Contra el presente Acuerdo que no pone fin a la vía administrativa, los interesados podrán formular recurso de alzada ante la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación.

Dicho recurso podrá interponerse ante el Tribunal Calificador, o bien, ante la Directora de la Academia de Policía del País Vasco.

En Arkaute, a 10 de marzo de 2009.

EL SECRETARIO DEL TRIBUNAL.

LA PRESIDENTE DEL TRIBUNAL.